



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

## 71. INFORMAZIO BULETINA

> 2012ko Urria



GIPUZKOA



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Ogasun eta Finantza  
Departamentua  
Departamento de  
Hacienda y Finanzas



ETA EUROPAR BATASUNA

> 2012ko Urria

## NABARMENDU BEHARREKOA

### > Europako Batzordeak udazkenean egindako aurreikuspen ekonomikoak

Europar Batasunaren aurreikuspen ekonomikoak oraindik ere ahulak dira Europako Batzordeak egindako aurreikuspenen arabera. Hala, erakundeak 2012rako BPGd % 0,3 murriztuko dela aurrez ikusi du. 2013rako, neurrizko hobekuntza aurrez ikusi du, BPGd-aren % 0,4, eta 2014rako, berriz, % 1,6ra arte.

Batasuneko langabezia-tasa 2013an % 10,5 eta % 10,9 arte igoko dela aurrez ikusi dute, aldiz, 2014an zertxobait murriztuko dela.

Dena den, krisiaren aurreko urteetan metatutako barneko eta kanpoko desoreka handiak murriztu diren arren, prozesu horrek eragina du oraindik herrialde batzuetako barne-eskaeran, eta jarduera ekonomikoak desberdinak dira kide diren Estatuen artean.

Era berean, kide diren Estatu batzuetan galdutako lehiakortasuna pixkanaka berrezartzen ari da, beraz, esportazioen hazkundea pixkanaka handituko da mundu mailako merkataritza berreskuratzen den heinean.

Eta, bestalde, zerga-finkapena aurrera egiten ari da, eta gobernuen defizitak aurtengo BPGd-aren % 3,6 arte atzera egingo duela espero da.

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/economy\\_finance/eu/forecasts/2012\\_autumn\\_forecast\\_en.htm](http://ec.europa.eu/economy_finance/eu/forecasts/2012_autumn_forecast_en.htm)



### > Europako banku-sistema seguruagoa, egonkorragoa eta eraginkorragoa

Azken txostenean, Europar Batasuneko banku-sektorearen egituraren erreformari buruz Goi Mailako Adituen Taldeak hainbat gomendio egin zizkion Europako Batzordeari Europako banku-sektoreari dagokionez.

Adituen gomendioen artean dago norbere kontuko eragiketak eta arrisku komertzial handiko beste jarduera batzuk nahitaez bereizi behar izatea, baita berreskuratzeari lotutako jardueren bereizketa osagarria. Ebazpen-tresna gisa erreskaterako tresnak erabiltzeari zuzenketa posibleak egitea ere proposatzen du.

Gomendio horiek ezarriz gero, Europako ekonomiaren, barneko merkatuaren eta Europar Batasuneko herritarren beharretarako banku-sistema seguruagoa, egonkorragoa eta eraginkorragoa lortuko da.

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/internal\\_market/bank/docs/high-level\\_expert\\_group/report\\_en.pdf](http://ec.europa.eu/internal_market/bank/docs/high-level_expert_group/report_en.pdf)

### > emugi! Proiektuak jaso du tokiko iraunkortasunaren praktika onenari emandako Udalsarea saria

emugi! ekimenak, Euskadiko 2007-2013 FEDER Programa Operatiboan sartutako Elgoibarreko mugikortasun iraunkorraren sustapenerako ekimenak, irabazi du klima-aldaketaren kategorian tokiko iraunkortasunaren praktika onenari emandako Udalsarea saria.

Proiektu honek pertsonak eta salgaiak garraiatzeko auto eta motor elektrikoen alokairua eta erabilera partekatua bultzatzen du.

*Informazio gehiago:*

<http://www.udalsarea21.net/paginas/ficha.aspx?IdMenu=0a484c98-c4cd-4dc9-ae9b-e59fcc6f9b1f>

<http://www4.gipuzkoa.net/ogasuna/fondoseur1/uploads/noticias/2011-11-04%20Noticia%20emugi.pdf>



## KOHESIO-POLITIKA

### > Eskualdeen eta Hirien Europako astea, OPEN DAYS 2012

Hilaren 8 eta 11 bitartean izandako Eskualdeen eta Hirien Europako Astearen (Open Days) 2012ko edizioan hogeita hamar herrialdetako gobernu maila guztietako 450 agintari eta 6.000 lagun inguruk parte hartu dute. Europar Batasuneko tokiko, eskualdeko, nazio mailako edo Europar Batasuneko administrazioetatik zetozen partaideen bi heren, eta gainerakoak arlo akademikokoak, kazetariak eta adituak ziren.

Open Days 2012 edizioak kohesio-politika nola aldatuko den ulertzeko, Egitura Funtzen hurrengo programazio-aldiak zer erronka berri planteatuko dituen eta 2007-2013 programa operatiboaren azken fasean zer gertatzen den jakiteko interesa duten guztientzat erreferentzia gisa duen rola sendotu du.

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/regional\\_policy/conferences/od2012/webstreaming.cfm](http://ec.europa.eu/regional_policy/conferences/od2012/webstreaming.cfm)

### > Kohesio-politikak konfinantzatutako Euskadiko garapen iraunkorreko proiektuak

Estrategia Empresarial izeneko argitalpenak artikulatu batean Euskadiko FEDER Programa Operatiboaren arloan Europar Batasunak konfinantzatutako eta hainbat administrazioek garatutako garapen iraunkorrera bideratutako proiektuen laburpena aurkeztu du.

Garraioak energia-kontsumoan duen eragina murrizteko eta eraginkortasun energetikoa eta energia berriztagarriak sustatzeko dauden lehentasunekin lotutakoak dira proiektuak.

Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatutako proiektuen artean, nabarmentzekoak dira auto elektrikoek ekimenak (Sarecar eta emugi!), bidegorrien sarearen hedapena eta beste hainbat ekimen, hala nola plaka fotovoltaikoak instalatzea eraikin publikoetan edo iraunkortasun energetikoa sustatzeko beste ekipamendu batzuk.

*Informazio gehiago:*

[http://www.ogasun.ejgv.euskadi.net/r51-19239/es/contenidos/informacion/politica\\_regional/es\\_2340/adjuntos/europa%20\\_noviembre2012.pdf](http://www.ogasun.ejgv.euskadi.net/r51-19239/es/contenidos/informacion/politica_regional/es_2340/adjuntos/europa%20_noviembre2012.pdf)



### > Eskualdeko politikak finantzatutako proiektuen mapa interaktiboa

Mapan jaso dituzte komunitateko eskualdeko finantzaketa jaso duten proiektuak. Proiektu nagusiei, «RegioStars» lehiaketako azken finalistei eta xehatutako kasuen azterketei buruzko informazioa bildu dute.

Europa mailako mapa honez gain, kudeaketa arloko hainbat agintarik mapa interaktiboak argitaratu dituzte zenbait herrialdetan eskualdeko finantziazioaren onuradunei buruzko informazio xehatuarekin.

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/regional\\_policy/projects/map/index\\_es.cfm](http://ec.europa.eu/regional_policy/projects/map/index_es.cfm)



## EUROPA 2020 ESTRATEGIA

- > Europako Batzordeak enpresa handietako administrazio-kontseiluetan emakumeen presentzia % 40ra irits dadin proposatu du

Kotizatzen duten Europako enpresen kontseilari-postuen % 14 dira emakumezkoak, nahiz eta unibertsitateko lizentziadunen % 60 izan emakumezkoak. Errealitate hori kontuan hartuta, Batzordeak legegintzako proposamena aurkeztu du Europako enpresen administrazio-kontseiluetan generoaren oreka handiagoa izateko prozesua bizkortu dadin.

Proposatutako direktibak burtsan kotizatutako Europako enpresetako exekutiboak ez diren administratzaileen artean emakumezkoen presentzia % 40koa izateko helburua ezartzen du. Ehuneko txikiagoa duten enpresek postu horiek betetzeko izendapenak egin beharko dituzte hautagai bakoitzaren kualifikazioen konparazio-azterketa bat oinarri hartuta, irizpide argiak, zalantzarik gabekoak eta ez-sexistak aplikatuta.

Enpresa handietako administrazio-kontseiluetan emakumezkoen presentzia gutxienez % 40koa izateko helburua 2020an lortu beharko da; aldiz, enpresa publikoek bi urte lehenago bete beharko dute, 2018an.

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/justice/newsroom/gender-equality/opinion/files/120528/women\\_on\\_board\\_progress\\_report\\_en.pdf](http://ec.europa.eu/justice/newsroom/gender-equality/opinion/files/120528/women_on_board_progress_report_en.pdf)

- > Kulturaren eta sorkuntzaren sektorean enplegua eta hazkundera bultzatzeko estrategia

Europako Batzordeak, enplegua eta hazkundera estimulatzeko asmoz, kulturaren eta sorkuntzaren Europako sektoreak bultzatzeko eta haien potentziala aprobetxatzeko estrategia berria aurkeztu du.

Batzordearen estrategia berriaren helburua sektore horietako esportazioaren potentziala eta lehiakortasuna handitzea da, baita beste arlo batzuetako zeharkako onurak maximizatzea ere, hala nola berrikuntzan, IKTetan eta hiriaren birsorkuntzan.

Sektore horiek gaur egun BPGd-aren % 4,5 dute eta Europar Batasunean 8,5 milioi lanpostu dituzte. Hainbat arlotan aktiboak diren enpresak eta beste erakunde batzuk biltzen dituzte: arkitekturan, artisautza artistikoan, kultura-ondarean, diseinuan, jaialdietan, zineman eta telebistan, musikan, arte eszeniko eta bisualetan, artxibo eta liburutegietan, edizio eta irratian

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/culture/our-policy-development/documents/com537\\_es.pdf](http://ec.europa.eu/culture/our-policy-development/documents/com537_es.pdf)





### > Europa 2020 eta tokiko eta eskualdeko erakundeen partaidetza

Eskualdeetako Batzordeak egindako txostenak gogorarazten du Europa 2020 Estrategiaren helburuak lortzeak finantza-baliabide osagarrien presazko ekarpena egitea eskatzen duela, baita tokiko eta eskualdeko erakundeen partaidetza handiagoa ere.

Europa 2020 Estrategiak tokiko eta eskualde mailan izango duen eragina ebaluatzeko Eskualdeen Batzordeak egindako inkesta sail batean oinarrituta daude ondorioak. Txostenaren arabera, gero eta maizago kontsultatzen dira tokiko eta eskualdeko ordezkariak-erakundeak, baina hala ere, nazio mailako gobernuek erabakitzen dituzte Europa 2020 Estrategiaren Erreformako Programa Nazionalak. Gobernantza maila ugarien arteko koordinazioak helburuak lortzean izan dezakeen ekarpen potentziala nabarmentzen du txostenak.

Eskualdeen Batzordeak txostenaren bidez eskatzen du Europako Batzordearen 2013ko Hazkundeari buruzko Urteko Azterketa Prospektiboan esplizituki esateko kide diren Estatuak tokiko eta eskualdeko erakundeek ahalbidetu behar diela Erreformako Programa Nazionalak prestatzean eta aplikatzean parte hartzea.

*Informazio gehiago:*

[http://portal.cor.europa.eu/europe2020/SiteCollectionDocuments/3rd%20CoR%20monitoring%20report/cdr1944-2012\\_10\\_00\\_tra\\_ann\\_es.pdf](http://portal.cor.europa.eu/europe2020/SiteCollectionDocuments/3rd%20CoR%20monitoring%20report/cdr1944-2012_10_00_tra_ann_es.pdf)

### > Europa 2020 Estrategiaren adierazleak

Eurostatek Europa2020ren garapen mailaren jarraipena egiteko ezarritako adierazleak eguneratu ditu.

Adierazle horiek bost helburu handiei dagozkie: enplegua, ikerketa eta garapena, klima-aldaketa eta energia, hezkuntza eta gizarte-bazterketa eta txirotasuna.

*Informazio gehiago:*

[http://epp.eurostat.ec.europa.eu/portal/page/portal/europe\\_2020\\_indicators/headline\\_indicators](http://epp.eurostat.ec.europa.eu/portal/page/portal/europe_2020_indicators/headline_indicators)



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Ogasun eta Finantza  
Departamentua  
Departamento de  
Hacienda y Finanzas



ETA EUROPAR BATASUNA

> 2012ko Urria

## DOKUMENTU INTERESGARRIAK

### > Zerga-politikaren erronkak hazkunde ekonomikorako eta iraunkortasun fiskalerako

Europako Batzordeko Ekonomia eta Finantza Gaietako Zuzendaritza Orokorrak eta Aduana Batasun eta Fiskalitate Zuzendaritza Orokorrak batera egindako urteko txostena. Kide diren Estatuetakoko politika fiskalaren arloan orain gutxiko joerak aztertu dituzte bertan.

Aurtengo edizioak batez ere EBko BEZaren sistema aztertu du, eta kide diren estatuetakoko zerga-politikak izango dituen erronkak identifikatzen ditu.

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/economy\\_finance/publications/european\\_economy/2012/pdf/ee-2012-6\\_en.pdf](http://ec.europa.eu/economy_finance/publications/european_economy/2012/pdf/ee-2012-6_en.pdf)

### > Benetako batasun ekonomiko eta diru-batasunerantz

Europako Kontseiluko behin-behineko txostena. Erakunde horrek irailean Europako Parlamentu eta Batasuneko kide diren Estatuetakoko bakoitzarekin egindako bi aldeetako bileretan jasotako proposamen eta ideiak bildu dituzte.

“Benetako batasun ekonomiko eta diru-batasunerantz” txostenean identifikatuko funtsezko elementuen inguruan egituratu da txostena eta ekainean aurkeztu zaio Europako Kontseiluari: Finantza-marko integratua, Aurrekontu-marko integratua, Politika ekonomikoaren marko integratua eta Legezketasun demokratikoa eta kontuak ematea

Dokumentu honen helburua elkarguneei balioa ematea eta urte amaierarako aurkeztu beharreko batasunaren egoerari buruzko azken txostenerako lan osagarria egin behar den arloetan aurrera egitea da.

*Informazio gehiago:*

[http://www.consilium.europa.eu/uedocs/cms\\_data/docs/pressdata/es/ec/132873.pdf](http://www.consilium.europa.eu/uedocs/cms_data/docs/pressdata/es/ec/132873.pdf)





### > IKERBIDE, Euskadiko ekonomiaren egiturazko datu-baseak

Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Plangintzaren Zuzendaritzak Ikerbide Euskal Ekonomiaren Egiturazko Datu-basea eguneratu du.

Euskal ekonomiaren bereizgarri diren egiturazko datuen aukeraketa zabalaren bilketa da, beraz. Aldagai garrantzitsuenekin egindako taulak prestatzea eta beste ekonomia batzuekin alderatzea ahalbidetzen du.

*Informazio gehiago:*

<http://www.ogasun.ejgv.euskadi.net/r51-17412/es/y26aSeriesWar/groups/init?locale=es>